# Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## EKONOMIA ETA PLANGINTZA SAILA

852

**104/1991 DEKRETUA, otsailaren 26koa, Biztanlegoaren 1991. urteko Udal Erroldaren berriketa eta erroldaren geroagoko kudeaketa estatistikoki probetxatzeko arau teknikoak ezartzen dituena.**

Biztanlegoaren Udal Erroldak duen garrantziaz jabetuta dago Euskal Autonomi Elkartea, bai administrazio eta baiudal kudeaketa ondorietarako eta bai biztanlegoari buruzko informazio estatistikoak ematen dituen ordezka-ezinezko iturria delako ere. Beraz, indarrean dauden legeek beren-beregi gaineratzen dion koordinatze-zereginaren arabera, bere lurralde-eremuan dauden Udalerri guztien Udal Errolden ustiaketa estatistikoa ahalbideratuko duten arauak ezarri behar ditu; helburu hori lortzeko, Hiru Lurralde Historikoetan erabili den eta denentzako eduki bera izan duen Erroldaketako Inskripzio-Orriaz baliatuko da; horren azken xedea, Estatistikako Euskal Egitamua onartzeari buruzko urriaren 6ko 7/1989 Legearen Eraskinak jasotzen duen 0153 estatistika burutu ahal izatea delarik. Eragiketa hori, Lege horretan, administrazioko lez arautzen da, izan ere, bere «sorrera-helburua» idazatian 3 zenbakidun kodea bait dute.

Plan horretan jasotako eragiketetako aldi guztien diseinua zertzeko proiektu teknikoak ezartzea ahalbideratzen du eragiketa estatistikoaren zernolako horrek. Bihar-etzi estatistikoki probetxagarriak izan daitezkeen administrazio ekintzak arautuko dituzte proiektu horiek, horietako bakoitzak izan dezakeen berebiziko araudiaren kaltetan gabe; beraz, teknika-mailako araudi bat da, eta horren eremu subjetiboak Euskal Autonomi Elkarteko Udalak hartzen ditu (33 kodea, erantzukizundun organua).

Horiek horrela, estatistika alorrean Euskal Autonomi Elkarteari eskuduntza guztiak gaineratzen dizkion Autonomi Estatutuaren 10.37 atalean ezartzen denaren arabera. Euskal Autonomia-Elkartearen Estatistikari buruzko apirilaren 23ko 4/1986 Legean ezarritakoaren arabera. Toki Erregimeneko Oinarri-Arauak Arautzeari buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak ere ezartzen duenaren arabera; horrek, bere 17. atalean, Biztanlegoaren Udal Errolda eraberritzeko eta zuzentzeko alorretan Autonomi Elkarteek bereganaturik duten koordinaketa-egitekoa finkatzen bait du; eta bere 55. atalean ezartzen duenez, Autonomi Elkarteen Administrazioaren eta Tokiko Erakundeen arteko koordinaketa eta efikazia eraginkorra lortu ahal izateko, euren zereginak betetzeko beharrezkoak izan daitezen lankidetza eta sorospen aktiboak eskeini beharko dituzte elkarren artean, erakunde bakoitzak hartzen duen eremuaren barruan. Eta 89/92 Estatistikako Euskal Egitamua onartzeari buruzko urriaren 6ko 7/1989 Legean ezarritakoaren arabera. Euskal Estatistika-Batzordeak gai honi buruzko txostena aurkeztu, Ekonomia eta Plangintza Sailburuak proposamena egin eta Jaurlaritzaren

## DEPARTAMENTO DE ECONOMIA Y PLANIFICACION

852

**DECRETO 104/1991, de 26 de febrero, por el que se establecen las normas técnicas para el aprovechamiento estadístico de la renovación del Padrón Municipal de Habitantes de 1991 y de la gestión padronal posterior.**

La Comunidad Autónoma de Euskadi, consciente de la importancia del Padrón Municipal de Habitantes, no sólo a efectos administrativos y de gestión municipal, sino también como una fuente insustituible de información estadística sobre la población y en virtud de la función coordinadora que expresamente le atribuye la legislación vigente, debe establecer las normas que posibiliten una explotación estadística uniforme de los Padrones Municipales de todos los Municipios de su ámbito territorial, a partir de la Hoja de Inscripción Padronal, de contenido común, utilizada en los tres Territorios Históricos, con la finalidad de hacer posible la realización de la estadística 0153 contenida en el Anexo de la Ley 7/1989, de 6 de octubre, del Plan Vasco de Estadística 89/92. Dicha operación, se conceptúa en la citada Ley como de origen administrativo al tener el código numérico número 3 en su apartado «origen/finalidad».

Tal caracterización de la operación estadística citada permite el establecimiento de proyectos técnicos para determinar el diseño de cada una de las fases de todas las operaciones contenidas en el Plan. Dichos proyectos técnicos regirán las actuaciones administrativas que posteriormente hayan de ser susceptibles de aprovechamiento estadístico, sin perjuicio de su normativa específica, tratándose por tanto de una normativa técnica cuyo ámbito subjetivo abarca entre otros los Ayuntamientos de la Comunidad Autónoma Vasca (código 33, órgano responsable).

En su virtud, y conforme a lo establecido en el Estatuto de Autonomía en su artículo 10.37 que atribuye a la Comunidad Autónoma de Euskadi competencia exclusiva en materia de estadística, a la Ley 4/1986, de 23 de abril, de Estadística de la Comunidad Autónoma de Euskadi, a la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, que en su artículo 17 reconoce la función coordinadora de las Comunidades Autónomas en la renovación y rectificación del Padrón Municipal de Habitantes y que en su artículo 55 preceptúa que, para la efectividad de la coordinación y la eficacia administrativa entre la Administración de las Comunidades Autónomas y las Entidades Locales, deberán en sus relaciones recíprocas prestar, dentro de su ámbito propio, la cooperación y asistencia activas que pudieran precisar para el cumplimiento de sus tareas, así como a la Ley 7/1989 de 6 de octubre, por la que se aprueba el Plan Vasco de Estadística 89/92, y habiendose emitido informe preceptivo por la Euskal Estatistika-Batzordea/Comisión Vasca de Estadística, a propuesta de la Consejera de Economía y Planificación, y previa deliberación y aprobación del Consejo de

Kontseiluak 1991.eko otsailaren 26an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATU DUT:

*1. atala.*— Erroldaketako Inskripzio-Orriak erabili beharko dituzte Euskal Autonomi Elkarteko udal guztiek, Eraskinean azaltzen diren ereduen edukiari eta formari egokitu beharko zaizkiola gutxienez. Eredu honi hertsiki jarraiki bete daitezen Orriak Euskal Estatistika-Erakundeak argitaratuko ditu.

*2. atala.*— Euskal Autonomi Elkarteko Udalerri guztietako Biztanlegoaren Udal Erroldako informazioaren kodifikazioa, mekanizaketa honi ekingo dioten Erakunde guztiei Euskal Estatistika-Erakundeak bidaliko dien Kode Liburuaren arabera egingo da.

*3. atala.*— Biztanlegoaren Udal Erroldeen mekanizaketaz arduratzen diren Erakundeek, Errolde horiek duten informazioa jasotzen duen zinta magnetikoa bidaliko diote Euskal Estatistika-Erakundeari, Erakunde horrek finkatuko dituen Arauen eta Grabaketa Erregistroen arabera.

*4. atala.*— Udalerri bakoitzeko biztanle guztiei buruzkoa izango da zinta magnetiko horiek jasotzen duten informazioa; herritarrek izan dezaketen egoitza-egoerak berdin dio, hau da, udalean bertan bizi diren egoiliarrak izan, bertan bizi ez direnak izan edo herri horretan pasadizokoak izan, ez du garrantziarik; azkenengo hauek, pasadizokoak alegia, numerikoki bakarrik azalduko direnarren. Inputazio edo zuzenketa automatikoko prozesurik jasan gabekoa izan beharko du informazio horrek; egiaztatu ere egingo da, Biztanlegoaren Udal Erroldaren kunplimentazio eta kodifikazio arauak betetzen dituen edo ez ikusteko.

*5. atala.*— 1991.eko abenduaren 31 baino lehen entregatuko zaizkio zinta magnetikoak Euskal Estatistika-Erakundeari.

*6. atala.*— 1991.eko uztailaren 1a baino lehen, udalek dituzten biztanle-kopuruak bidaliko dizkiote Udalek Euskal Estatistika-Erakundeari, Osoko Bilkurak onartu ondoren.

*7. atala.*— Biztanlegoaren 1991.eko Udal Erroldako datuen ustiakea estatistikoa burutu eta argitaratuko du Euskal Estatistika-Erakundeak.

*8. atala.*— 1991.eko 1az geroztik egingo den errolda-kudeaketan, egoitza aldaketei, bikoizketaren ondoriozko bajei, errolderatze okerrei eta omisioen ondoriozko altei buruzko instrukzioak, hots, Euskal Estatistika-Erakundeak emango dien Manualean azaltzen direnak hain zuzen, kontutan hartuko dituzte; horiek bihar-etzi estatistikoki probetxatuko direla bermatzeko.

*9. atala.*— Errolde件raketen arteko epealdiak diraueno, 1996. urterarte alegia, Euskal Estatistika-Erakundeari eta dagokion Foru Aldundiari, honako hauen kopiak bidaliko dizkiete Udalek, hots, Zenbakizko Laburpen Orokorrarena, Udalerriko sekzioetako egoiliarren Alten zenbakizko Laburpenarena eta Udalerriko sekzioetako egoiliarren Bajen zenbakizko Labur-

Gobierno en su sesión celebrada el día 26 de febrero de 1991

DISPONGO:

*Artículo 1.*— En todos los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi se utilizarán Hojas de Inscripción Padronal que se ajusten como mínimo al contenido y la forma de los modelos que figuran en el Anexo. Las Hojas que respondan estrictamente a este modelo serán editadas por el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.

*Artículo 2.*— La codificación de la información del Padrón Municipal de Habitantes de todos los Municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi se hará de acuerdo con el Libro de Códigos que el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística hará llegar a cada una de las Instituciones que van a llevar a cabo la mecanización.

*Artículo 3.*— Las Instituciones encargadas de la mecanización de los Padrones Municipales de Habitantes remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística copia en cinta magnética de la información contenida en los mismos, de acuerdo con las Normas y Registro de Grabación que fije el citado Instituto.

*Artículo 4.*— La información recogida en las cintas magnéticas estará referida a la totalidad de los habitantes de cada Municipio independientemente de su situación de residencia, es decir, tanto los residentes presentes o ausentes como para los transeúntes, si bien estos últimos figurarán sólo en forma numérica. Esta información, que no habrá sido sometida a ningún proceso de imputación o corrección automática, estará verificada de forma que satisfaga las normas de cumplimentación y de codificación del Padrón Municipal de Habitantes.

*Artículo 5.*— La entrega de las cintas magnéticas al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística se efectuará antes del 31 de diciembre de 1991.

*Artículo 6.*— Con anterioridad al 1 de julio de 1991, los Ayuntamientos remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística las cifras de la población municipal, tras su aprobación por el Pleno.

*Artículo 7.*— El Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística realizará y publicará una explotación estadística de los datos derivados del Padrón Municipal de Habitantes de 1991.

*Artículo 8.*— En la gestión padronal posterior a la renovación de 1 de marzo de 1991, los Ayuntamientos tendrán en cuenta las instrucciones relativas a los cambios de domicilio, las bajas por duplicados e inclusiones indebidas y las altas por omisiones, que figuran en el correspondiente Manual que les será facilitado por el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística con el fin de asegurar su posterior aprovechamiento estadístico.

*Artículo 9.*— Durante el período interpadronal, es decir hasta 1996, los Ayuntamientos remitirán al Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística y a la correspondiente Diputación Foral una copia del Resumen Numérico General, del Resumen numérico de Altas de residentes en cada una de las secciones del Municipio y del Resumen numérico de

penarena, guztiek ere, Biztanlegoaren Udal Erroldean urtero izaten diren Zuzenketei dagozkienak alegia.

*10. atala.*— Udalak biztanlego kopuruak onartu ondoren, berehalako batean bidaliko dira 9. atalean aipatzen diren agiriak.

AZKEN XEDAPENAK

*Lehenengoa.*— Dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezkoak diren xedapenak emateko ahalmena ematen zaio Ekonomia eta Plangintza Sailburuari.

*Bigarrena.*— Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik izango du indarra Dekretu honek.

Vitoria-Gasteiz, 1991.eko otsailak 26.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Ekonomia eta Plangintza Sailburua,
MARIA DEL CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA.

## ERASKINA

Erroldaketako Inskripzio-Orriaren ereduak jasotzen ditu Dekretu honekin batera doan Eraskinak; horien argitalpen-lana Euskal Estatistika-Erakundeak burutuko duelarik.

Bajas de residentes en cada una de las secciones del Municipio, correspondientes a las Rectificaciones anuales del Padrón Municipal de Habitantes.

*Artículo 10.*— El envío de los documentos citados en el Artículo 9 se efectuará de forma inmediata a la aprobación de las cifras de población por el Ayuntamiento.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*— Se faculta a la Consejera de Economía y Planificación para que dicte cuantas disposiciones sean necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto.

*Segunda.*— El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 26 de febrero de 1991.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

La Consejera de Economía y Planificación,
MARIA DEL CARMEN GALLASTEGUI ZULAICA.

## ANEXO

El Anexo contiene los modelos de Hoja de Inscripción Padronal, cuya edición será realizada por el Euskal Estatistika-Erakundea/Instituto Vasco de Estadística.